



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIARI BURUZKO LEGEARI
BOSGARREN ALDAKETA EGITEKO PROIEKTUAREN AZALPEN-
MEMORIA OSAGARRIA**

2016ko apirilaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legeari bosgarren aldaketa egiteko legearen aurreproiektua bidali zitzaion Gobernu Kontseiluari. 2016ko apirilaren 26ko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legeari bosgarren aldaketa egiteko legearen proiektua onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Ekimena 2016ko maiatzaren 10ean erregistratu zen, eta izapidetzeko onartu, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Legebiltzarreko izapidea hasita, indargabetu egin zen, X. legegintzaldia amaitu baitzen.

Segurtasuneko sailburuaren 2018ko urtarrilaren 12ko Aginduaren bidez (bertan, Segurtasun Sailaren 2018ko arauzko urteko plangintza onartzen da), plangintza horretara Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea aldatzeko lege-aurreproiektua sartzea erabaki zen, eta Lehendakariitzako Idazkaritza Nagusira bidaltzea, Eusko Jaurlaritzaren 2018ko Arauzko Urteko Planera sar zedin.

Aurreproiektu berrian, ez da oinarritzko lege-aldaketa garrantzitsurik jasotzen, bi aldaketa txiki hauek bakarrik egin baitzaizkio testuari:

- a) Bi paragrafo berri sartu dira azalpen-zatira, Segurtasun Batzordearen 2017ko ekainaren 14ko erabakiak eta Europako Kontseiluak poliziaren kode etiko europarrari buruz emandako gomendioa aipatzeko xedez.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Jarduera Onen Batzordeari izena aldatu zaio, egokiago ikusi baita "Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Kontrolerako eta Gardentasunerako Batzordea" izendatzea.

Beraz, egoki jotzen dugu aurreproiektua Gobernu Kontseiluari bidaltzea, dagoeneko izapidetuta dagoen dokumentazio guztiarekin batera, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeari begira.

Sin.: (digitalki) Eugenio Artetxe Palomar
ARAUBIDE JURIDIKOKO, ZERBITZUETAKO ETA HAUTESKUNDE
PROZESUETAKO ZUZENDARIA